

LUIS VILLASANTEREN BIO-BIBLIOGRAFIA

Jose Antonio ARANA MARTIJA

Euskaltzaindiak Luis Villasante Kortabitarte, euskaltzainburu ohiari, eskaintzan dion omenaldi libururako bio-bibliografia hau, Gernikako Arbolatik ehun metrotara idatzia da, Karmelo Etxegarai euskaltzaina izandako izena daraman kalean eta Sebero Altube euskaltzainaren izenean eraikitako auditoriumetik ehun metrotara. Beraz, euskaltzaletasunez ondo inguraturik sortzen da nere idazlan hau. Aipatu euskaltzainez baneukan zeozer baino gehiago lehendik idatzia¹, baita denboraldi batetan nere sorterrian bizi izan zen Bonifazio Etxegarai euskaltzainaz². Baina nere euskaltzain sarrera egunean aitabitxi izan nuen aita Villasanteri zor niona ordaintzen diot gaurkoan³, gernikar edo luzaro Gernikan bizi izandako euskaltzainekin neukan zorra honekin kitatzen dudalarik.

Bestalde, san Frantziskoren umiltasunez eta apaltasunez jantzia den fraide honek, Arantzazun bizi arren, ez du behar bada arantzarik ariman sartuta izango; baina nik, eta beste askok, sarritan entzunda baitaukat, badugu mindura bat barru-barruan iltzatuta. Euskal kulturaren eta euskararen eremuan puntarengo den gizon honi ez zaio behar den bezalako onespén eta eskertzerik egin. Bizkaitarra

¹ SEBERO ALTUBE. «Ha fallecido Sebero Altube», *Brisas Guerniquesas*, 1963, Sep-Oct. «Seber Altube: La fonction de la douleur», *BRSBAP*, 1968, I, 130-131. «Altuberi buruz egindako bibliografia», *Euskera*, 1971, 83-85. «Un pequeño léxico vasco de Seber Altube», *Euskera*, 1973, 153-159. «Seber Altuberaren bizitza, musika-lana eta bibliografia», *Euskera*, 1974, 256-267. «Seberoren musika eta idazlanak», in: Jose Maria Velez de Mendizabal, *Sebero Altube*, 1979, 159-162. «Seber Altuberaren nortasuna sakonduz», *ibid.* 147-158. «Sebero Altube eta Gernikako euskara: Domingo Kanalaetxebarria», *Euskera*, 1979 - 2, 593-604. «Altuberaren euskal arimari, bertsoetan», *Euskera*, 1979 - 2, 615-616. KARMELO ETXEGARAI. «Carmelo Echegaray», *Brisas Guerniquesas*, 1965, Noviembre. «El franciscanismo de Carmelo Echegaray», *Aranzazu*, 1966, Agosto, 21-25. «Karmelo Etxegarai, idazle Gernikan», *Egan*, 1975, 21-25. «Catálogo de la Exposición de Carmelo Echegaray en la Casa de Juntas de Gernika», 1982.

² «Bonifazio Etxegarai eta Korta», *Egin*, 1978.6.4. «Bonifazio Etxegarai eta Korta», *Euskera*, 1979 - I, 45-59.

³ *Euskera*, 1990 - 1, 9-42. Sarrera hitzaldiari Villasanteren erantzuna, *ibid.* 35-39.


denik ere batzuren batzuk ez dakitela dirudi, eta seme kutun edo bikainak izendatzekoan, ez dugu orain arte susmorik ere ikusi. Biografia honen ondoren ematen dudan bibliografian, euskal letretan Villasantek duen merezimendua nabari agertzen zaigu, batzuoari behintzat. Eta hor dago nere, gure, arantza eta mindura. Gernikar honen izatea eta emaitza adierazi nahi nieke ezjakitun eta itsuei, zor zaiona behingoz ordain diezaioten.

1. Gurasoak

Jose Villasante Martinez Burgos probintziako Cadagua de Mena herriskan jaio zen 1866an, aita Jacinto Villasante, Castro-Abantokoa, eta ama Maria Martinez, Las Heras-koa, biak burgostarrak zirelarik. Luisa Kortabitarte Gerrikaetxebarria Bizkaiko Aulestin jaio zen 1886an, aita Martin Kortabitarte, Ipazterrekoa, eta ama Josefa Gerrikaetxebarria, Aulestikoa, biak bizkaitarrak izanik. Jose Villasante eta Luisa Kortabitarte Aulestin ezkondu ziren 1919.eko urtarrilaren lauean, senarrak 53 urte zituelarik eta emazteak 33 urte⁴.

Jose Villasante Martinez Cubara joan zen hamairu urterekin 1879an, morroi lanetan ari izan zelarik lehen urteetan, eta orduko eta geroko lanaren irabaziekin dirutzatxoa aurreztu omen zuen. Baina Cubara heldu zenean bakeunea bazen ere, 1878an sinatutako Zanjoneko itunaren ondorioz, laster hasi zen iraultza berria eta soldadutzako adina heldu zitzaionean gerrara deitua izan zen. Gerra horretan zango batetan zauritu zuten, eta kabu kargua merezimenduz lortu arren, betirako geratu zen erren. Gerra amaitu zenean, 1898.eko abuztuaren 13an Parisen sinatutako hitzarmenaren arabera, Estatu Batuen eskuetan geratu zenez Cuba estatua, Menara itzuli zen gure Jose Villasante. Hemen Felicitas Perez Villasante anderea-rekin seme bat izan zuen, Jose-Gonzalo Villasante Perez, hain zuzen; baina denbora gutxira alargun geratu zen Jose aita, eta aita-semeak bakarrik bizi izan ziren Cadagua de Mena herriskan.

⁴ Ezkontza agiria 1990.eko urriaren 21ean aurkitu nuen Aulestiko San Juan Bataiatzailearen parrokiako erregistroan, Ezkontzen 7. Liburuan, 243 folioaren atzekaldean. Hala dio: En la anteiglesia de Murélagu y su puebla de Aulestia, provincia de Vizcaya, diócesis de Vitoria, a cuatro de Enero de mil novecientos diecinueve, yo el infrascrito cura ecónomo de la iglesia parroquial de San Juan Bautista, en virtud de autorización del M. I. Sr. Provisor y Vicario General de esta diócesis, su fecha veintiuno de octubre del pasado año, con dispensa de las tres amonestaciones y previos los demás requisitos en Derecho necesarios, casé por palabra de presente y di las bendiciones nupciales a Don José de Villasante Martínez, viudo de Doña Felicitas Pérez Villasante, natural de Cadagua de Mena, provincia de Burgos, Diócesis de Santander, feligrés del citado Cadagua, de 53 años de edad, de profesión comerciante, hijo legítimo de D. Jacinto, natural de Castro de Abanto, provincia de Burgos, y de Doña Maria, natural de Las Heras, provincia de Burgos, con Doña Luisa Cortabitarte y Guerricaechebarria, soltera de treinta y tres años de edad, natural de ésta y feligresa de la parroquia de mi cargo, hija legítima de Don Martín, natural de Ispaster, provincia de Vizcaya, y de Doña Josefa, natural de ésta. Fueron testigos Don Cesáreo de Ibarrolandia y Doña Isidora de Cortabitarte, vecinos de ésta. En fe de lo cual lo firmo fecha ut supra. Firmado: Timoteo de Calle-Aransolo.



Jose Villasante eta Luisa Kortabitarte, gurasoak. Aitarekin, Maria Dolores. Erdian, Jose-Gonzalo, anaiordea eta Luis.

Luisa Kortabitarte Gerrikaetxebarria, gero senarra izan zuen Jose Villasante baino hogeitun urte gazteagoa zen. Hiru ahizpa zituen Luisak: Dominga, Maria eta Isidora, bera bezala Aulestiko Narea auzoan jaioak. Azken hau dendaria zen Aulestin eta dendarako salgaiak erostera Gernikara edo Bilbora jotzen zuen. Bestalde Mena haranekoek ere Balmaseda edo Bilborekin zituzten harremanak salerosketa arazoetan, eta Jose Villasante ere, errentalaria zenetik, Bilbora hurbiltzen zen sarri askotan. Halako baten, Isidora aulestiarrarekin topo egin zuen eta Luisa ahizparentzat partidu onekoa izan zitekeela menatarra iruditu zitzaion. Luisarekin arpegi-ikustea proposatu zion eta hala prestatu zen Jose Villasante eta Luisa Kortabitarteren ezkontza, 1919an burutua.

Bestalde, eta geroago, beste familiako lotura bat ere sortu zen. Isidora Kortabitarte eta Zesareo Ibarrolaren alaba Eleuteria («Teri») Jose-Gonzalo Villasanterekin ezkondu zen 1953an, aita Luis Villasantek, Jose-Gonzaloren anaiordeak eta «Teri»ren lehengusuak, ezkondu zituelarik. Gernikako Agustinoen ikastetxean egin zituen ikasketak Jose Gonzalok, eta hemengoak burututa Ingalaterrara bidali zuen aitak ingelesa ikas zezan. Beraz, hizkuntza hau ondo meneratu ondoren, Villasanteren anaiorde honek erraz lortu zuen lanpostua Elgoibarko Sigma etxean. Eleuteria Ibarrola alargun geratu zen 1971an senarra Donostian hil zitzaionean.

Ezkondu eta denbora gutxira Gernikara etorri ziren bizitzera Villasante-Kortabitarte senar-emazteak. Aulestin euskara bakarria mintzatzen zenez, ez zuen lagun girorik aurkitzen senarrak eta Gernikara etortzea erabaki zuten. Juan Jose Gerrikabeitia Malaxetxebarria (1890-1988) «Txautxi» ezizeneko aulestiarrak erai-ki berriak zituen etxebizitzetara etorri ziren ezkondu berriak. Nahiz eta sarritan entzuna izan, aurrera jo orduko esan dezagun Gernika alboko Errenteria auzora heldu zen 54 urteko menatarra ez zela goarda zibila, errentalaria baizik⁵.

2. Hautzaroa

Oka ibaiak banantzen zituen orduan Gernika eta Ajangiz udalak, gero 1943an udal bakar baten bildu zirenak. Errenteria auzoa azken horren barrutian egon arren, Ajangizko parrokiatik urrun zegoenez bere etxe multzoa, Gernikako San Juan parrokiako elizkideak ziren Errenteriako biztanleak. Gaur egun Errenteriako auzoa Gernika udalean dago. Gernikatik Lekeitiora doan errepideak Errenteriako auzo hori erdialdetik zeharkatzen du, eta orain San Bartolome izena daraman kale horrek, San Juan izena zeukan gerra aurrean. Kale horren 8. zenba-

⁵ Goarda zibilaren semea izan zen beste gernikar idazle ospetsu bat, Remigio Vilariño Ugarte, josulaguna. 1865.eko urriaren batean jaioa. Aita, Domingo Vilariño, Lugotik etorria zen eta ama, Prudenzia Ugarte Erandion jaioa.

kia zeraman «Txautxi»ren etxean, lehen solairuko ezker aldean, jaio zen Luis Villasante Kortabitarte 1920.eko martxoaren 22an⁶. Astelehena zen eta hurrengo iganderarte ez zuten gurasoek bataiatu Gernikako Andra Maria parrokia nagusian. Beraz, martxoaren 28an hartu zuen bataio sakramentua, Sekundino Obieta abadearen eskutik, izeko Dominga Kortabitarte eta honen senarra Leon Plaza aitabitxiak izan zirelarik.

Bi urte zituen jaio zitzaion Luisi arreba bat, Maria Dolores izenekoa, 1922.eko apirilaren 7an⁷, 1938an Valladolideko Brigiden komentuan monja sartu zena eta oraindik bertan dirauena. Lasai eta estutasunik gabe bizi zen familia. Baina 1926.eko uztailaren 17an ustegabeko gertakizun goibela jazo zen: ama, erdibitzean, eta haurra hil ziren⁸. Etxekoandre eta amaren hutsunea betetzeko Bizenta Kareaga, Aulestiko lehengusina etorri zitzaion Gernikara.

Sei urte zituen Luisek ama hil zitzaionean. Aitarekin gaztelaniaz mintzatzen bait zen, etxeko euskal solaskidea joan zitzaion, baina ordezkoi ona izan zuen hurrengo urteetan euskal giro hori mantentzeko, amaren ordezkoi hori ere euskalduna bait zen. Ordurako, 1924ean hasita, Gernikan monja karmeldarrek zeukaten haurreskolara zihoan egunero. Eusebia, Josefa, Jesusa izeneko menjekin jolasten zuela gogoan dauka Villasantek. Bonbardaketan erre zen San Juan parrokian elizmutila izan zela diosku eta dotrina ikastera Andra Maria eliza nagusira joaten zela baieztatzen digu. Jose Jauregi abadearekin dotrina ikasten zuela gogoan dau-

⁶ Gernikako Andra Maria parrokian, bataiatuen 4. Liburuan (1918-1928), 115. folioan agiri hau irakurtzen da: En la villa de Guernica y Luno, provincia de Vizcaya, diócesis de Vitoria, a veintiocho de marzo de mil novecientos veinte, el Presbítero D. Secundino Obieta, Coadjutor de la Iglesia Parroquial de Santa María de ésta, con licencia expresa del infrascrito Presbítero Cura Económico de la misma y Arcipreste del Partido, bautizó solemnemente a un niño a quien puso por nombre Luis. Nació según declaración del padre a las cinco de la mañana del día veintidos del corriente en la casa número ocho del Barrio de Rentería. Es hijo legítimo de don José Villasante Martínez, natural del valle de Mena, Burgos, de profesión comerciante y de Doña Luisa Cortabitarte Guerricaechebarria, natural de Murélagu, Vizcaya, feligreses de ésta. Son sus abuelos paternos Don Jacinto y Doña María, naturales del Valle de Mena y los maternos D. Martín, natural de Ispaster, Vizcaya, y Doña Josefa, natural de Murélagu. Fueron padrinos del bautismo D. Leon Plaza y Doña Dominga Cortabitarte, naturales de Murélagu, a quienes advirtió el parentesco espiritual y obligaciones que contrajeron, y testigos D. Rafael y D. Isaías Cañizal, vecinos de ésta. En fe de lo cual lo firmo fecha ut supra. Firmado: Jose Domingo de Iturrarán. Urte berean jaio ziren Jean Diharze «Iratzeder», euskaltzaina, Jon Etxaide, euskaltzain ohorezkoa, Eugenio Agirretxe, euskaltzain urgazlea, Fernando Aire «Xalbador» bertsolaria.

⁷ Maria Dolores Villasante Kortabitarte-ren bataio agiria liburu berean agertzen da, 221. folioan. Ruperto Arronategik bataiatu zuen 1922.eko apirilaren 16an.

⁸ Gernikako Andra Maria parrokian, hildakoen 3. Liburuan (1918-1933), 174. folioaren atzekaldean agiri hau irakurtzen da: En la villa de Guernica y Luno, provincia de Vizcaya, diócesis de Vitoria, a dieciocho de julio de mil novecientos veintiseis, yo el infrascrito Presbítero Cura Económico de la Iglesia Parroquial de Santa María de Guernica, Arcipreste de ella y de su partido, mandé dar sepultura eclesiástica al cadáver de Doña Luisa Cortabitarte Guerricaechebarria que falleció el día de ayer, hija de D. Martín y de Doña Josefa, natural de Murélagu, de cuarenta años (sic) de edad de estado casada. No recibió los santos sacramentos. No testó. Se le hizo oficio de sepultura y ha sido inhumado en el cementerio de ésta. En fe de lo cual firmo fecha ut supra. Firmado: Mons. Jose Domingo de Iturrarán.

ka, eta irakasle honen izekoa zen Emeteria Jauregi andereak eskainitako baloi bat saritzat irabazi zuela ere. Sei urte bete baino lehen, eta ama bizi zelarik, 1926.eko urtarilaren 19an, konfirmatu zuen Luis haurra Zacarias Martinez, Gasteizko apezpikuak. Lehen jaunartzea 1928an egin zuen.

Ama hil ondoren, eta sei urte eginak zituelarik, Jose-Gonzalo anaiordea ikasten ari zen Agustinoen ikastetxera eraman zuen aitak. Ikastetxe horretan biz-pahiru urte bete zituela gogoan du, baina ez dauka bizitzaren epe horren oroipe-nik. Frai Juan atezainak jotzen zituen kanpaiak gogoan ditu, baita katekesikoekin Deba aldera egindako txangoa ere. Baina ez zen bere gustukoa hango giroa, aberaskumeen aldeko bereizkeria nabaria bait zen. Jose-Gonzalo anaiordea, ostera, pozik zebilen, ikaslerik onenatarikoa bait zen, sarritan estudioetan saritua eta ikastetxeko aldizkarian artikulua ere argitaratzen zituena. Baina haurren giroa bestelakoa omen zen eta egun batez aitari esan zion Luisek ez zuela berriz hara joan nahi. Aita liberala omen zen eta 1929an Juan Ansotegi maisuaren eskolara joatea onartu zion. Gernikarra zen maisu hau eta Arantzazun fraide izandakoa. Organo jolea ere bazen eta alboko herrietara maiz joaten zen meza nagusietan eta hiletetan parte hartuz. Baserritarrek ondo ezagutzen zuten eta semeak bidaltzen zizkioten eskolara, merkea zelako gainera kobratzen zuena: hileroko bost pezeta goiz-arratsaldeko ikasketengatik. Errena zen maisu hau eta hortik datorkio «la cuesta del cojo» izena eskola kokatuta zegoen San Juan kaleko zatiari.

Gogoan dauka Villasantek etxe ondoko giroa: zubiaren ondoan zegoen Zuñigaren denda, Juana emaztearen izenarekin ezagutua, Antonio Uriguen aulestia-rraren gozotegia, Pedro Lauzirikaren gaileta-fabrika, Mestraituaren marmoldegia, eta bizi ziren etxepean «Txautxi» perratzailea. Azken hau ezin ahanztekoa dela dio Villasantek, goizeko zortzietan, abereentzat perrak egokitzeko ingudea jotzen hasten bait zen, iratzargailu beharrizanik ez zutelarik etxean. Auzoko Patxi Gerrikabeitia «Txautxi» eta Isidro Mestraitua ziren jolaslagunak. Jaiki ondoren eta eskolara joan orduko, Juanaren dendatik ekartzen zion aitari *El Pueblo Vasco* egunkaria.

3. Arantzazura

Sukaldari ona omen zen Jose Villasante aita, eta eguneroko erosketak Bizenta Kareagak egin arren, gabonetakoak aitak berak egiten zituen, gero Luisek, eskolatik irtenda, etxera eramaten zituenak. Don Tello kalean zegoen Leandro Omaetxebarriaren dendan egiten zituen aitak halako erosketa bereziak, solaslaguna ere bait zen dendari hura. Luisek aitortzen duenez, ez zuen Gernikako eskole-tan gauza askorik ikasi, eta norabaitera bidali nahi zuen aitak ikasketa sakona-goak burutu zitza. Arantzazura bidaltzea gomendatu omen zion Omaetxebarria adiskideak, han zeuden Ignacio eta Carlos semeek ikasitakoekin pozik zegoen eta. Luis semea Arantzazura eramatea erabaki zuen aitak eta tokia izango zuela ziurtatu ondoren, hango ikastetxean sartu orduko gaiditu beharko zuen esamina



Ezkerretetik hasita, lehen lerroko hirugarrena Luis Villasante da. Arantzazun, 1934ean.

prestatzen hasi zen semea. Bernardo Madariaga Foruria, Baldatikako semea, Arantzazuko ikasketen arduraduna zen orduan. Zarautzen 1928an Frantziskotarren Probintziakoek egindako biltzarrean izan zen kargu horretarako izendatua, eta 1931an eta 1934an berriz hautatua. Beste gernikar bat ere Arantzazura joateko zen une berean, Jose Antonio Gandarias Gorriño, Villasanteren etxetik hurbil bizi zena, zubiaren Gernikako aldetik hain zuzen, eta honen etxean egin zien esamina ikaskide biei Bernardo Madariagak. Biak izan ziren Arantzazurako onartuak.

Jose Villasantek hartu zuen bi ikasleen bidaiaren ardura, eta 1931.eko abuztuaren 18an iritsi ziren Arantzazura, Frai Bizentek gidatzen zuen fraideen autobusean. Villasantek dioenez, fraideen ostatuan egin zuen berak aitarekin lehen Arantzazuko lotaldia gau horretan eta Gandariasek komentuko ikastetxean. Hurrengo goizean lehen ikastaroa hasteko ziren 25 ikasleren taldean sartu zen, aurrerantzean eta betiko bizigune izango zuen Arantzazun.

Oporrik gabeko hiru urte bete zituen Villasantek Arantzazun, hots, 1931tik 1934ra. Jose Antonio Urkiola Gantxegi bergararra zen ikastetxearen erretore, eta Nikolas Iturbe Elkorobarrutia arrasatearra, Fruktuoso Andueza Etxegoien olitearra, Roman Iturrioz Arregi azkoitiarra, Carlos Ibarreta urtupinarra, Bernardo Aperribai Okina aretxabaletarra eta Jose Beltran de Heredia, Dalloko arabarra ziren orduko irakasleak. Arantzazun orduan egiten ziren ikasketak 1927an onarturiko *Statuta pro studiis regendis* delakoan arauturik zeuden: Erlijioa, Latina,

Gaztelania, Frantsesa, Grekoa, Historia eta Geografia, Natur Zientziak, Matematika, Kaligrafia, Gregorianoa eta Musika ziren lehen hiru kurtsoetako ikasgaiak. Gogoan du Villasantek aita Ibarretaren aginduz Underwood batekin ikasi zuela makinaz idazten.

Giza-ikasketak burutzeko beste bi urte bete behar ziren eta 1929tik hasita Gernikatik hurbil dagoen Foruko ikastetxean egiten ziren estudio horiek. Arantzazun egindako ikasgaiak sakonduz eta gehituz aparte, euskara ere sartzen zen ikasgaietan. Basilio Guerra Telleria legazpiarra zen Foruko ikastetxearen erretore Villasante 1934.eko urriaren 4ean hara heldu zenean. Eta han izan zituen irakasleak honako hauek ziren: Ignacio Ajuria Erezuma muxikarra, Jose-Gabino Agirretxe Azpilleta errexildarra, Luis Gabirondo Aranburu tolosarra, Markos Gastesi Agirrezabalaga orexarra eta Frantzisko Jauregi Plaza amorotarra. Bigarren ikastaroan zegoelarik (1935-1936), hau da, giza-ikasketetako bosgarrenean, gaisorik egon zela Gabon inguruan eta hamabost egun edo etxean egin zituela gogoan dauka Villasantek.

4. Gerraldia

Giza-ikasketaldiaren bosgarren kurtsoa amaitu zuen Villasantek Foruko frantziskotarren Ikastetxe Serafikoan eta 1936.eko uztailaren 17an, gerraren hasierako bezperan, hamar egunetako oporraldia eman zioten, nobiziadua hasi orduko etxean egotaldi bat egin zezan. Aulestiko familia ikustera joateko astia izan zuen, Nabarniztik zehar oinez joanez; baina aitarekin Menara joateko paradarik ez zuen izan. Berehala heldu zitzaion Zarautzera nobiziadura joateko eguna eta uztailaren 27an komentu horretan agertu ziren Villasante eta Gandarias ikaskideak. Baina gerra arazoak gaizki zeuden Gipuzkoan eta Pedro Luis Zaloña Zaloña aretxabaletarrak, orduan Zarautzen guardiana zenak, etxera itzultzeko agindua eman zien nobiziadura etorritako gernikarrei. Eta Gernikara itzuli ziren bi gernikarrak abuztuaren lehen egunetan, etxean 1937.eko maiatzera arte egongo zirelarik.

Jose-Gonzalo anaiordea, Luis baino zortzi urte zaharragoa, soldadutzara deitua izan zen eta UGT-ko 7. batailoira miliziar eginda joan zen egun haietan. Tomas Gomezak Iparragirre kalean zeukan gaileta fabrikari lan egiten zuen Jose Gonzalok eta haren hutsunea bete zuen Luisek 1936.eko irailaren lehen egunean, non ezer kobratu gabe administrazio lanetan ziharduen. Bonbardaketa egunean, hots, 1937.eko apirilaren 26an, burutu zuen Villasantek lanaren azken egun erdia, eguerdian etxera joan eta arratsaldean gaileta-fabrika hura erre bait zuten.

Iritsi zen zorigaitzeko eguna. Aita gaisorik zebilen aspalditik, eta etxeko lanetan eta bizimodua atontzeko han zegoen Bizenta lehengusina, inoiz baino beharrezkoagoa une hartan. Bazkalondoan su kanpaiak deiadarka hasi zirenean, Patxi Gerrikabeitia «Txautxi» adiskideak etxearen atzekaldeko errekatxoan eginda zeukan lehorpera eraman zuen Luisek aita. Bonbardaketa geldiuene batetan

aitarentzat aulki baten bila joan zen Luis etxera. Gero etorri zen gogorrena: etxeak sutan, trenkadak dardaraz eta leherduraz apurtzen, jendea han hemenka ihes... Etxeko gauzak salbatu nahian, balkoietatik kalera jaurtika zebilen jendea, baina etxe barruan edo kalean dena erre eta galdu zen gau negargarri hartan. Oraindik gordetzen duen aitaren erlojua salbatu zuen Luisek poltsikoan sartuta. Roman Gomeza Bilbora joan zen familiarekin eta zutik geratu zen honen etxera joan ziren Villasantetarrak bizitzera. Baina ez zeukaten jatekorik ez erosteko dirurik, Euskal Gobernuak ateratako diruak ez bait zuen balio, eta hainbat egunetan soldaduen errantxoak jan beharrean aurkitu ziren. Gosea kendu beharrez, edozer jateko prest zegoen Luis, baina aita esne hutsez elikatzen zenez, ezinbestekoa zen nonbaiten bilatzea. Esne saltzailearen baserrira joateko baimena eman zioten Luisi milizianoek.

Maiatzaren azken egunetan itzuli zen Villasante Zarauzko komentura. Han zegoelarik hil zitzaion aita 1937.eko ekainaren 7an, urdaileko ultzeraren eraginez⁹.

5. Fraidetza

Francoren indarrak Gipuzkoaz jabetuak ziren ordurako eta nolabaiteko baretasuna nabaritzen zen herrialde honetan. Julio Egiluz Ipinazar probintzialak nobiziadua egin behar zuten gernikarrei dei egin zien Zarautzen bil zitezen maiatzaren azken egunetan. Oñatiko semea zen Bizente Astaburuaga Ugarte anaia, lehendik ezagutzen dugun Frai Bizente, kamioi batekin etortzen zen Foruko fraide eta ikasleei janariak ekartzera eta honen itzulian joan ziren Debaraino Villasante, Gandarias eta Pedro Anasagasti bermeotarra, Debatik Zarautzera trenez abiatuz. Fraide jantzia 1937.eko maiatzaren 29an hartu zuen Villasantek eta urte beteko nobiziadua aita Bizente Urdapilleta bidaniarrarekin hasi, ondoren aita Zaloña izan zuelarik nobiziaduko maisu. Nobiziadua amaituta, 1938.eko maiatzaren 31an egin zuen profesatxiki edo xumea. Prest zegoen filosofia ikasketak hasteko.

⁹ Gernikako Andra Maria parrokian, hildakoen 4. Liburuan (1933-1950), 87. folioan agiri hau irakurtzen da: En la villa de Guernica y Luno, provincia de Vizcaya, a ocho de junio de mil novecientos treinta y siete, el presbítero D. Secundino Obieta, Coadjutor encargado de la Iglesia Parroquial de Santa María de esta Villa, mandó dar sepultura eclesiástica al cadáver de D. José Villasante Martínez, hijo de D. Jacinto y de Doña María, natural de Cadagua de Mena, Burgos, de setenta años de edad. Falleció según certificación facultativa a las once de la noche del día de ayer en el Barrio de Rentería a consecuencia de «ulcera de estómago». En el acto de fallecimiento se hallaba viudo de Doña Luisa Cortabitarte, natural de Murélagu, Vizcaya. Recibió los santos sacramentos de Penitencia, Viático y Extremaunción administrados por el Presbítero D. Pedro Rafael Aboitiz, Capellan de las religiosas Carmelitas de esta. Testó ante D. Aurelio Ortiz, Notario de ésta. Se le hizo oficio de sepultura y ha sido inhumado en el cementerio de ésta en presencia de los testigos D. Segundo Lejarraga y D. Saturnino Barrencua, vecinos de ésta. En fe de lo cual lo firmo, fecha ut supra. Firmado: Mons. Jose Domingo de Iturraran.

Baina 1938.eko abuztuan, hamazortzi urte beteta zituenez, soldadutzara deitua izan zen. Donostiatik Burgosera egun osoa bota zuen trenez, eta Burgoseko koartelean bi egun egin ondoren, Salas de los Infantes herrira bidali zuten ariketa militarrek egitera. Hilabeteko ariketok amaituta, berriz Burgosera itzuli zen iraillean, soldadutzako denboraldi aspergarria betetzeko agindupean. Ea ofiziorik zeukan galdetu ziotenean, fraide zela aitortu zuen eta makinaz idazten zekiela. Nahiz eta fraide zenaren aipamen horrekin haserretu kapitaina, makinaz idazten zekiela laguntzaitzat hartu zuen eta urtebeteko soldadutza Burgosen bete zuen, frentera joan gabe, ofizio horri esker, *Mayoría* edo koartelaren zuzendaritzan makinaz idazlanak eginez.

Dena den, fraide izateak izan zuen ondorio mesedegarria: soldadutzan urte bete egin ondoren, ikasketak jarraitzeko baimena eman zien fraide ikasleei, eta 1939.eko abuztuan Arantzazura itzuli zen Villasante. Soldadutzatik etorri ziren fraide guztiak gogo jardunaldiak egin beharrean aurkituko zirela eta, hala egitea agindu zien Julio Egiluz probintzialak. Hurrengo kurtsoan filosofia ikasketak hastea zegokion, eta beste ikaskide batzurekin batera Oliteko komentura bidali zuten. Nafarroako hiri honetan iragan zituen hiru urte, 1939tik 1942era. Lehendik ezaguna zuen Bernardo Madariaga Foruria fraidearekin egin zituen Metafisika ikasketak; Alejandro Ezkurdia Olasagasti oriotarrarekin Natur Zientziak, Fisika, Kimika eta Biologia; Daniel Gorostizaga Salazar arrankudiagarrarekin Etika eta Soziologia eta Jose Benito Mendia Lasa zarauztarrarekin Kosmologia, Psikologia eta Euskara. Azken hau izan zen euskararekiko gogo berotu ziona, baita Villasante baino urte bete zaharragoa zen Salvatore Mitxelenari ere¹⁰. Erdi ezkuan irakurri zituen orduan Sebero Altuberren *Erderismos*, Resurreccion Maria de Azkue-ren *Morfología Vasca* eta Axularren *Gero*. Haurtzaroan kaleko lagunekin herriko euskara egiten bazuen Villasantek (ez da, beraz, bateren batek esan duenez, euskaldun berria), Oliten, erdal herrian, izan zuen euskara landuarekin aurkiketa.

Oliteko ikasketak 1942an bukatu ondoren, fraidetzan aurrera jarraitzeko asmoa agertzen zutenek profesia nagusia egin behar zuten. Villasantek, Arantzazura berriz etorruta, 1942.eko abuztuaren 30ean egin zuen behin betiko profesia nagusi hori. Gerraren zioz irakasle gutxi zeuden orduan Arantzazuko komentuan eta bi urteko Teologia ikastaroak bertan bete ondoren (1942-1944), Bernardo Madariagaren aholkuz, garai hartan probintziala zen Kastor Apraiz Erezuma muxikarrak Comillaseko Seminariora bidali zituen bi ikaskide hauek: Luis Villasante, Teologia Dogmatikoa ikastera, eta Pedro Anasagasti, Teologia Morala eta Zuzenbide Kanonikoa estudiatzera, gai hauek irakasleak behar zirelako Arantzazun. Hiru urteko ikasketak burutu zituen Villasantek Comillasen eta Teologiako estudioak

¹⁰ Salvatore Mitxelena adiskideari zuzendu zion Villasantek idatzi zuen hirugarren lana, eta moldiztegiari argitaratu emandako bigarrena. Urte berean beste idazlan bat ere zuzendu zion. Ikus Bilbiografian 3 eta 8 zenbakiak.



*Aita Luis Villasante Aulestín
meza berria eman zuenean,
1945.eko abuztuaren 15ean.*

bukatzeko eta lizentziadun titulua lortzeko, honako hau izan zen hautatu zuen gaia: *Duns Scotok Ama Birjinari buruz idatzitakoak*. Ezinbestekoa zen Arantzazuko fraide batek frantziskotar honen idazkiak aztertzea. Baina Comillaseko Seminarioa 1947ko udan utzi zuenerako, Eusebio Hernandez Garcia bertako irakaslearekin tesia prestatzen hasia zen, zeinen burutzea gero ikusiko dugun.

Comillasen ikasketak egiten ari zelarik hartu zituen hiru ordena nagusiak. Lehena, subdiakonoarena, Burgosek Oñan josulagunek zeukaten komentuan hartu zuen, bera bakarrik ordenatua izan zelarik, 1945.eko uztailaren 29an. Comillasen lehen ikastaroa burutu ondoren gertatu zen hau. Arantzazura itzuli zen oportetara eta Olaiz apezpikuaren eskutik diakono ordena hartu zuen urte bereko abuztuaren 9an. Hurrengo egunean, Lorentzo deunaren jaia ospatuz, abuztuaren 10ean, beraz, apaiztu zuen Arantzazun Olaiz apezpikuak. Meza berria Aules-

tin, amaren jaioterrian, eman zuen aita Luis Villasante Kortabitartek 1945.eko abuztuaren 15ean, Ama Birjinaren Jasokunde jaiegunean, Pedro-Rafael Aboitiz Isasi, Gernikako abadea, aitabitxi izan zuelarik. Apaiztu ondoren, beste bi urte eman zituen Comillasen Teologiako ikasketa bereziak bertan burutu arte.

Apaiz eginda eta jadanik Teologian lizentziaduna zenez, 1947ko ikastaroaren hasieran Arantzazuko irakasle izendatu zuten nagusiek. Oinarritzko Teologia irakatsi du ordutik 1978 arte. Teologia irakasterakoan eta ikasleei erraztasunak emateko, hiru liburuxka prestatu zituen Villasantek 1949tik 1952ra: *Theses Theologiae Fundamentalibus*, «ad usum privatum», hau da, etxean erabiltekoak¹¹.

Baina teologoei ikasketak emanez gain, Ikastetxe Serafikoko 14-15 urteko mutikoei euskara irakasten ari izan zen urte askotan. Hara zer dioskun irakasleak berak, non eta Soriako Agreda herrian 1960.eko irailean idatzi zuen hitzaldi batean: lehendabizi, euskalki ezberdinak mintzatzen ziren herrietatik zetozenez ikasleak, gehien bat Gipuzkoatik eta Bizkaitik, euskalkiak elkarrengandik ez urruntzea zen helburua, taldeak euskalkika banatu beharrean, denak batera hartuz eta bestearena entzutera ohituz. Bigarren oinarri pedagogikoa honako hau zen: Euskarazko eskola euskaraz eman behar zela, eta ez hori bakarrik, ikaskizunen bat euskara hutsean eman behar zela, ikasleak euskararen erabilera trebatzeko. Eta hirugarrena: Gramatikak ez zeukala horrenbesteko garrantzirik, astuna eta aspergarria egiten bait zitzairen ikasleei. Hitzegin, irakurri eta idazteari ekin behar ziotela mutikoei uste zuen Villasante irakasleak. Horretarako, bai irakurtzeko, baita itzulpenak egiteko ere, urte pare bat lehenago berak gipuzkerara itzulita zeukan *Kataliñen gogoetak*¹², Txomin Agirrerren *Kresala* eta *Garoa*, Felix Bilboaren *Ipuin barreka* eta beste ematen zien ikasleei¹³. Baina euskara lantzeko gramatika ere ikasi behar zela eta, bi liburuxka prestatu zituen: *Paradigmas de la conjugación vasca*¹⁴ eta *Euskal gramatika llabur eta idazleen pusketa hautatuak*¹⁵.

Nahiz eta irakaskuntzari ordurik hoberenak eman behar, Comillasen hasita zeukan tesia burutu behar zuela iruditu zitzaion Villasanteri. Zumaian jaioa zen monja baten bizitza mistikoa gaitzat hartuta, lehen egindako lana garatzea zen oraingoan zegokiona. Eusebio Hernandez josulagunaren zuzendaritzapean burutu zuen 1951an argitaratuko zen tesia: *La Sierva de Dios M. Angeles Sorazu, Concepcionista Franciscana (1873-1921). Estudio místico de su vida*¹⁶. Geroztik monja honi buruz idatzitako artikuluek eta liburuek¹⁷ ematen digute haren bizitza mistikoak Villasanterengan izan duen eragina.

¹¹ Ikus Bibliografian 2, 14, 31 zenbakiak.

¹² Ikus Bibliografian 71 zenbakia.

¹³ «Euskal eskola nola ematen dedan» Ikus Bibliografian 116 zenbakia.

¹⁴ Ikus Bibliografian 43 zenbakia.

¹⁵ Ikus Bibliografian 49 zenbakia.

¹⁶ Ikus Bibliografian 13 zenbakia.

¹⁷ Ikus Bibliografian zenbaki hauek: 26, 28, 38, 52, 62, 282, 482, 556, 573, 582, 629, 634, 639, 655, 684, 685, 686, 687, 688, 705, 706, 714, 728, 744. Argitaraturiko hiru liburuek hauek dira: *Nere izena zen Plorentxi* (1961), Bibliografian 112 zenbakia; *M. Sorazu. Un mensaje para tiempo difi-*



Meza berri emalearen aldareko laguntzaileak. Aita Villasanteren eskumaldean, Pedro Rafael Aboitiz, aitabitxia, eta goiko lerroan, ezkerretik hirugarrena, aita Sabin Zubieta, O.F.M.

Baina beste monja batzuren bizitzak ere gogokoak izan ditu aita Villasantek beronen ikerketa eta idazkietan. Sorazuren ondotik gehien aztertu izan duena Sor Maria Jesus de Agreda izan da¹⁸. Eta berriz Euskal Herriko monjetara itzuliz, honako hauen bizitzak aztertu ditu: Benita Arrizurieta¹⁹ eta Matea Alonso Ruiz de Gauna²⁰. Bernarda Ruiz de Gamiz nekazaria ere gogoko izan du bizitza mistikoak aztertzean²¹. Baina gizonezko santuak edo kristautasunerako ereduak ere aztergai izan ditu Villasantek, hala nola: Loiolako Inazio²², Beasaingo Martin Agirre frantziskotarra²³, Frantzisko Antonio Palacios, euskal frantziskotarra hau ere²⁴, Pedro de Alcantara²⁵ eta Juan Maria Vianney, Ars-ko erretorea²⁶, eta nola ez Anai Frantzisko eta Arreba Klara²⁷.

les (1981), Bibliografian 497 zenbakia: *Angeles Sorazu, Bizia eta Mezua*, (1990), Bibliografian 716 zenbakia.

¹⁸ Ikus Bibliografian zenbaki hauek: 156, 178, 187, 188, 272, 525.

¹⁹ Ikus Bibliografian 213 zenbakia.

²⁰ Ikus Bibliografian 628 zenbakia.

²¹ Ikus Bibliografian 67 eta 76 zenbakiak.

²² Ikus Bibliografian 56 eta 59 zenbakiak.

²³ Ikus Bibliografian 122 zenbakia.

²⁴ Ikus Bibliografian 44, 103 eta 118 zenbakiak.

²⁵ Ikus Bibliografian 144 zenbakia.

²⁶ Ikus Bibliografian 42 zenbakia.

²⁷ Ikus Bibliografian 396 zenbakia.


Villasanteren iritziz «Jainkoa euskara baino garrantzitsuagoa da», baina lehenetasun hori jarri arren, biak maite ditu barru barrutik, eta berea dugu esaldi hau: «Euskal Herriari eman diodan gauzarik ederrena eta baliotsuena erlijioaz euskaraz idatzi dudana da». Eta benetan baliotsuak eta euskarari dagokionetik ederrak dira *Arantzazu* aldizkarian idatzi dituen ehundaka artikulua eta, beste batzuren artean, honako liburu hauek: *Jainkoa* (1962), *Jesukristo* (1969), *Eliza* (1984) eta *Kristau Fedea* (1986)²⁸.

Ikusiko dugunez, 1951an euskaltzain oso izendatzeko proposamena egin zioten Villasanteri eta izandapena onartu orduko Pablo Lete Jausoro probintziala zenari baimena eskatu zion kargua leporatzeko. Zalantza gabeko baietza eman zion aita Letek, Arantzazutik irten beharrik ez zeukalako eta frantziskotarrentzat ohorea zekarrelako izendapenak. Lehen esandakoak kontutan izanik, Arantzazuko komentuan eta ikastetxe serafikoan beharrezkoa zen Villasanteren pertsona. Gero, 1978an Bilboko Teologia Fakultatea sortu zenean, ikasle barik geratu zen Villasante eta ordurako Euskaltzainburu zenez, Bilbora joateko tentazioa ere izan zuen, baina hara horretaz zer dioskun: «Bilbon biziko banitz, gauza horiek errazago egingo nituzke eta batzuetan joateko gogo pizka bat ere eman dit; baina ez nuke hemen dudak bakerik izango». Tomas Larrañaga probintzialak ere askatasun guztia eman zion nahi zuena egiteko, baina hara hemen Villasanteren erantzuna: «Bidaltzen banauzu, joango naiz, baina neurez pozik nago hemen». Eta bertan jarraitzen du soseguan, goizetik gauera lanean. Forun, Zarautzen, Burgozen, Oliten eta Comillasen emandako bederatzi urteak kenduta, berrogeita hamar urte bete ditu Villasantek Arantzazun eta honek adierazten digu nolako lotura eta leialtasuna izan duen frantsizkotarren ordenarako eta bereziki Arantzazurako. Baina berezitasun bat azpimarratu behar da, hots, irakasle eta euskaltzain izateak eman dion arduragatik edo, ez diotela inoiz kargurik eman ordenaren barruan.

Nahiz eta ordenaren barruan kargurik izan ez, beti izan du Villasantek frantziskotarren izaeraz eta Arantzazuko ikasleen hezkuntzaz ardura bizia. Frantziskotarren Probinztiako Biltzarra 1973an antolatu zenean, txosten sakona aurkeztu zuen ordenaren berriztatzeak eta ikasle gazteen hezkuntzak hartzen zituzten bide berriez. Eraberritze horrek ekar zezakeen arriskua salatu zuen orduan Villasantek. Elizaren eta fedearen munduan esandakoak ziren. Euskaltzaindian, ostera, eta garai berebean, berriztatzeko aurrepauzu handiak eman zituen.

Sorazu dela eta Valladolideko honen komentura, eta Agreda dela eta honen jaioterrira fraide gisa egindako bidaietatik aparte, beste batzu ere egin zituen aita Villasantek. Aleman apur bat ikastearren, 1954ko udan frantziskotarrek Achenen (Akisgranen) daukaten komentura hilabeteko joan etorria egin zuen. Bidaia horretan, Villasanteren euskaltzain sarrera hitzaldiari emandako erantzunagatik

²⁸ Ikus Bibliografian 121, 243, 580 eta 633 zenbakiak.



Euskal Herriko Adiskideen Elkartean sartzea eta Eliza liburuaren aurkezpena.

ihes egin izan behar zuen Federiko Krutwig-ekin topo egin zuen Parisen. Gero Lur Santuetara erromes bat egin zuen 1966.eko Aste Santuan. Martxoaren 30ean Jerusalemara heldu eta hurrengo egunetan Betlehem, Jericho, Jordan ibaia, Samaria, Emaus, Getsemani, Haifa, Nazareth, Galileako itsasoa, Kafarnaum, Tabor mendia eta Telaviv ikusi zituen, Bartzelonara apirilaren llan itzuliz. Erroma ikus- teko parada ere izan zuen bidaia honetan. *Aranzazu* aldizkarian eman zigun Villasantek osteraren honen kronika²⁹. Fatimara ere joan zen 1967.eko uztailean aita Jose Inazio Lasarekin, eta bidaia lagun hau aipatzen badut honengatik da: Doctor Camino historiagilearen dokumentu ezezagunak aurkitu zituelako itzultzerakoan Valladoliden. Suitzako Neuchatelera joan zen geroago Villasante, 1970.eko udan, Espainiako langileen kaperau frantziskotarrak oporrak hartuak zituenez gero, haren hutsunea betetzera. Handik osteraren bat egin zuen La-Chaux-de-Fonds hirira, non adiskidea izan zuen Salvatore Mitxelena bizi izan zen eta hil bost urte lehenago 1965an. Erromara berriz joateko aukera izan zuen 1975.eko udan, beste fraide askorekin batera, eta Paulo VI.ari eskaini zizkion *Eusker*a agerkariaren zenbaki batzuk. Añoveros, Bilboko apezpikuaren bidez hartu zituen Aita Santuaren eskerrak. Beste aita santu bat ere, Joan Paulo II.a, 1982.eko azaroaren 3an agurtu zuen Madriden, kultur erakundeei egin zien harreran.

Ordurarte irabazitako merituak goraipatuz eta nolabait eskertzeko, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak kidetzat hartu zuen 1984.eko azaroaren 26an,

²⁹ Ikus Bibliografian 202 eta 221 zenbakiak.

eginkizun horretan *Eliza* liburua aurkeztu zuelarik. Doctor Camino delako bibliotekan eman zioten ongi etorria Juan Ignacio Uria eta Iñaki Barriola kideek, eta liburuaren aurkezpenean Karlos Santamaria eta Juan San Martin adiskideak mintzatu ziren.

Fraidetzako bizitza hau ikusita esan dezakeguna da soseguzko lan pozgarria eta emankorra burutu duela aita Luis Villasantek. Baina zorigaitzak ere izan ditu, esate baterako Malla aldeko Arlepo mendian izan zuen istripua. Aita Jose Inazio Lasak, adinaren eraginez, artzain kaperautza utzi egin beharrean aurkitu zenean, aita Villasantek bete zuen hutsunea 1985ean. Urtero, maiatzetik azarorarte, meza ematen die artzainei Urbiako baselizatxoan. Mendizalea ere denez, astero egiten ditu mendietan zehar lasaitasunerako ibilaldiak. Halako batetan, 1987.eko abenduaren 29an, Olitetik ezagutzen zuen Rufino Gil adiskidearekin, urtero bezala, menditik zihoan eta behaztopatuz bekokiarekin jo zuen harkaitza, zauri handia eginez. Reyes Korkostegi jaunak kotxean hartu eta Arrasateko klinika batetara eramn zuen non Galarza sendagileak josi bait zion zauria.

Angeles Sorazuren beatifikaziorako prozesua 1988.eko apirilaren 13an hasia zen eta Telletxea Idigoras jaunaren gomendioz, monja honen autobiografiaren bigarren argitarapen gehitua prestatzeko lanaz Villasante arduratu zen. Urte bereko abuztuan Valladolidera joan zen Sorazuren eskribuak aztertzer eta zetorkion lanarekin kargutuz, Euskaltzainburu kargua uztea nahiago zuela adieraztera eman zuen Uitzin Orixeren mendeurrena ospatu zenean, 1988.eko azaroaren 26an. Hamazortzi urteko lan baliotsu eta eskergarriari amaiera ematen zion une horretan Villasante euskaltzainburuak. Jean Haritschelhar euskaltzainak eta aspaldidanik buruordea zenak hartu zuen ardura hori 1988.eko abenduaren 30ean kargu horretarako hautatua izan zenean. Eta Angeles Sorazu zumaia-tarrari emango dizkio aurrerantzean Villasantek bere laneko ordurik gogatsuenak.

6. Euskaltzaina

Oliten filosofia ikasketak 1942an burutu ondoren, Arantzazura etorri zen Villasante teologia estudioekin fraidetzan jarraitzeko. Comillasera 1944an joan orduko, aita Jose Antonio Garate Unanue azkoitiarrak eskatuta idatzi zuen euskarazko lehen artikulua, «Artzai eta Santu»³⁰. Bazegoen orduan Arantzazuko teologoen artean euskararekiko grina eta taldetxo bat, BAI izenekoa, sortua zen Salvatore Mitxelena, Eugenio Agirretxe eta Jose Maria Elustondo fraideen esku-tik. Talde horretan sartu ziren Luis Villasante eta Karmelo Iturria eta beste, ge-roxeago. Euskararen erabilera komentuan bultzatzea zen taldearen asmoa eta al-dizkaritxoa ere ateratzen zuten isilean. Behin apaiztuta, teologia eta euskara

³⁰ Ikus Bibliografian 1 zenbakia.

irakasle lanetan hasi zenean, *Arantzazu* aldizkarian hasi zen Villasante euskarazko artikuluak idazten³¹.

Berrogeita hamarreko hamarkadan —diosku Villasantek— bost katu ginen euskaraz idazten genuenak. Kontutan izan behar da *Euzko Gogo*a, gerra osteko euskarazko lehen aldizkaria, 1950ean sortu zuela Zaitegik Guatemalan. Beraz, hain gutxi izanik euskaraz idazten genuenok, segituan izendatu ninduten euskaltzain urgazle, dio. Angeles Sorazuri buruzko tesia Bilboko Errukietxean inprimatzen ari ziren 1950ean, eta moldiztegiko frogak zuzentzera joaten zen Villasante hiri horretara. Halako batean, *La Gaceta del Norte* egunkarian irakurri zuen Federiko Krutwig-ek Euskaltzaindian sarrera hitzaldia eman behar zuela. Hitzaldiaren gaia oso interesantea iruditu zitzaion, hots, kultur hitzen erabilera euskara landuan, eta eginkizun horretara joetea erabaki zuen. Euskaltzaindia zertan zegoen une horretan ere ez zekiela aitortzen du Villasantek, orduko egunkari eta aldizkariak ez zuten erakunde honen berririk ematen eta. Arazo honekin benetan kezkatuak zegoenez, mundu berri hartan sartzeko gogo biztu zitzaion, eta telefonoz aurretiaz deituz, bisita egin zion Krutwigi Rodriguez Arias kaleko honen etxean. Gogoan du nolako harrera ona egin zion euskaltzain berri horrek eta zelako eragina izan zuen bere baitan euskara eraberritzeko zeukan asmoak. *En torno al problema del vascuence* liburuxkatxo argitaratu zuen Villasantek 1951an³² eta 1951.eko otsailaren 23an, Maria Paz Zigandarekin batera, euskaltzain urgazle izendatua izan zen, Azkue oraindik bizi zelaririk. Lau hilabete lehena, 1950.eko urriaren 27an, euskaltzain urgazle izendatuak izan ziren gero euskaltzain oso izatera iritsiko ziren honako hauek: Antonio Maria Labaien, Pierre Narbaitz, Pierre Charriton, Guillaume Epherre eta Koldo Mitxelena. Julio de Urquijo euskaltzaina 1950ean hil zenez, bizkaitar honen aulkia betetzeko euskaltzain oso izendatua izan zen Villasante 1951.eko irailaren 25ean. Federiko Krutwigi zor ziola izendapena aitortzen du orduko euskaltzain berriak.

Bizkaiko Diputazioan irakurri zuen Luis Villasantek Euskaltzaindian sarrera hitzaldia 1952.eko maiatzaren 23an. Gernikan, jaioterrian, nahi izan zuen hitzaldi hori irakurri, baina Krutwigek Bilbon egin behar zela sarrera eginkizuna proposatu zuen, Euskaltzaindiak lortu behar zuen itzalagatik. Hala egin zen, Diputazioako bibliotekan. Mahaian zeudenak: Hilario Bilbao (Esteban Bilbaoren anaia), Fernando Etxegarai (Karmeloren semea), Manuel Lekuona (Inazio Maria Etxaide euskaltzainburuaren ordez), Ignacio Urquijo, Nazario Oleaga Euskaltzaindiaren idazkaria (orduan zadorlaria deitua) eta Federiko Krutwig. Entzuleen artean honako hauek ikusten ziren: Eusebio Erkiaga, Pedro Aranguren, garai hartan Arantzazuko guardiana, Pablo Lete, hau ere frantziskotarra, biak komentutik etorriak, Josefina Ibarrola, senitartekoa, Aulestitik etorria, eta abar. Luis Villasantek gai

³¹ Ikus Bibliografian 4. zebakitik aurrera.

³² Ikus Bibliografian 25 zebakia.

honetaz irakurri zuen bere sarrera hitzaldia: *Literatur euskara laphurtarr klasi-koaren gain eratua*, luzea eta mamitsua. Erantzuna Krutwig-ek eman zion, elizak eta orduko erregimen politikoak euskararen aurka zeukaten jarrera salatuz³³. Jendea txalo beroka hasi zen, baina Krutwig-en hitzek bestelako ondorio bat izan zuten batzuren baitan. Jose Migel Seminario de Rojas, euskaltzain «politikoak», Krutwig Euskaltzainditik botatzea eskatu zuen bilera batetan, eta Hilario Bilbaok honako hau esan omen zuen: «Ese judío polaco nos va a enseñar lo que tenemos que hacer!» Erne zegoen polizia Krutwigen bila joan zen, baina ordurako ihes eginda zegoen.

Hileroko bileretara joateaz gain, idazlanetan jarraitu zuen Villasantek hurrengo urteetan, hainbat euskal klasikoen lanak aztertuz: Añibarro, Beobide anaiak, Bonaparte, Etxeberri, J.K. Etxeberria, Etxepare, Iztueta, Larramendi, Leizarraga, Mogel, Ubillos, Ulibarri, Uriarte. Baina klasikoen artean gehien aztertu duena, zalantzarik gabe, Axular izan da. Gogora dezagun hainbat artikulutan eman zigula «Despojo sistemático de la lengua de Axular», idazle honen *Gero argitaratu zuela itzulita, sarrera luze batekin* (1964), *Axular, Mendea, gizona, liburua* eman zigula (1972) eta *Axular-en Hiztegia* (1973). Mende honetako idazleak ere aztertu ditu: Altube, Orixe, Urquijo; baina hauen artean ere izan du bere kutuna, Domingo Agirre Badiola hain zuzen, zeini hainbat artikulua eskaini dizkion, beronen liburuak ere berrargitaratuz: *Garoa* (1966) eta *Kresala*, bi aldiz (1967 eta 1976).

Aipamen berezia zor zaio 1961ean kaleratu zuen *Historia de la Literatura Vasca* liburuari. Urtebete lehenago atera zuen Koldo Mitxelenak, titulu berdinarekin, bere historia; baina Villasanterena askoz ere sakonagoa da eta datuak ematerakoan aberatsagoa³⁴. Gero agertu ziren Santiago Onaindiarena, euskaraz, eta Añamendik argitaratu zituen bost tomoak. Egia esan, Villasanterenak hutsune haundi bat bete zuen euskal letren munduan eta izan zuen arrakastak ekarri zigun bigarren argitarapena 1979an.

Euskaltzaindiak antolatutako biltzarretan eginkor agertu zen beti Villasante: Arantzazun (1956), Bilbon (1958), Eibarren (1959), Donostian (1961), Arantzazun, berriz (1963), Loiolan (1964), eta azkenik hirugarrenez Arantzazun (1968). Arantzazuko bigarren biltzarra 1963.eko irailaren 30etik urriaren 2 arte eratu zen. Txosten luzea irakurri zuen Villasantek lehen egunean, «Sebero Altube iztegi arazoetan maisu». Baina hori baino pozgarriagoa izan zen, behar bada, zera ikus-tea: hogeit urte lehenago BAI taldeak ereindako hazia zuhaitz bilakatu zela jadanik Arantzazun. *Jakin* aldizkaria sortu zuten 1956an beronen ikasle izandako Jose Azurmendi, Joseba Intxausti, Fernando Mendizabal eta abarrek, eta han zeuden txosten mamitsuak aurkezten. Gainera Villasanteren koinata zen Eleuteria Ibarrola anderea ere mintzatu zen ipuin batzuk kontatuz Bizkaiko euskara

³³ Ikus Bibliografian 35 zenbakia.

³⁴ Ikus Bibliografian 111 zenbakia.



Arantzazun 1968.eko urrian bildutakoak.

bizian. Donostiako Columbia etxeak diska batetan atera zituen gero ipuin hauek Villasanteren ardurapean.

Euskaltzaindiaren sorrerako berrogeita hamar urteak ospatzeko, beste egin-kizun batzuren artean, beste biltzar bat, Arantzazuko hirugarrena, antolatu zen 1968.eko urriaren 3tik 5era. Aurreko urtean, 1967an, Bilboko Erribera kaleko egoitzan eginiko bilera batean, urrezko ezteiak zetozela eta, batasuna izan behar zela 1968ko biltzarraren gaia proposatu zuen Gabriel Arestik. Hala izatea onartu zen eta Koldo Mitxelenari agindu zioten batasunari buruzko txosten nagusia presta zezala. Hala egin zuen eta beste txosten batzuk ere aurkeztu ziren biltzarrean, tartean bi Villasanterenak: «Batasunari buruz bibliografia» eta «Antziñako euskal hitzen formaz». Mitxelenaren hitzaldi nagusiak gai bat zekarren biltzar honetan erabakitzeke, hots, euskararen *Ortografia*. Arantzazuko Gogo Jardunaldietako etxean eratu zen biltzarre hau eta hainbat eztabaida sortu ondoren, gehien bat H letra zela eta, sukaldean bildu ziren euskaltzain oso guztiak eta Koldo Mitxelenak eta Jose Maria Satrustegik idatzitako testua onartu zuten. Bildutako guztiei agiria irakurri ondoren, «Gernikako Arbola» kantatuz bukatu zen biltzarrea. Ez zen bertan istilurik sortu —diosku Villasantek— gero *Eusker*a agerkerian argitaratu zenean baizik³⁵.

Iritzi argia zeukan Villasantek batasunari buruz. Arestiren proposamena jarraikiz, urrezko ezteien atarian zegoela Euskaltzaindia idatzi zuen 1967.eko

³⁵ *Eusker*a, 1968, XIII, 137-265.

urrian³⁶, eta batasunaz zehatzago 1968.eko uztailean³⁷. Biltzarrea amaitu ondoren, 1968.eko abenduan, artikulu bat honetaz eman zigun: «Hacia el vasco común unificado»³⁸. Gai hau garatzen hasi zen gero eta Euskaltzainburu izendatua izan ondoren, sinatu zuen 1970.eko irailean bere liburu honen hitzaurrea: *Hacia la lengua literaria común*³⁹, «Luis Eleizalde» saila hasten zuelarik. Hurrengo hilean hartuko zuen Euskaltzainburu kargua.

7. Euskaltzainburu

Pariseko Sorbonara joan zen Koldo Mitxelena 1969an hizkuntzalaritza ikasurte bat ematera eta han jarraituko zuen 1970.eko uztaile arte. Beraz, Arantzazun 1968an hartutako erabakiak *Euskera* agerkarian kaleratu zirenean, ezin izan zituen hurbiletik erasoak erantzun. Nemesio Etxaniz, Anizeto Zugasti eta beste batzuk erabakien aurka jarri ziren, Manuel Lekuona euskaltzainburuari kezkek agertuz eta burua berotuz. Euskaltzainburuak, 1970.eko urtarrilaren 30ean egindako osoen bileran, Arantzazuko erabakiak ez zirela dekretuz inposatu behar esan zuen, eta Mitxelenaren iritziaz gainera beste batzurenak ere entzun behar zirela. Eztabaida gogorak sortu ziren H letrari buruz, gehien bat, eta giro oso txarra bizi izan zen 1970.eko lehen hilabeteetan. Lehendik zetorren berotzen giro txar hori, berrizaleen aurkako jarrera hartuta bait zuten batzuren batzuk aspaldidanik. Jose Maria Lojendio euskaltzainburua zelarik (1963-1965) esan omen zion Antonio Arruek ez zela abertzalerik Euskaltzaindian sartu behar. Ildo horretatik zetorren, esate baterako, Txilardegiri «Txomin Agirre» saria 1968an eman zitzaionean, Losada poliziaren protesta, baita Gabriel Aresti, Xabier Kintana eta beste urgazle batzuren proposamenak, urgazle zirelako, ez onartzea. Giro hori aldatzeko eta Euskaltzaindiaren Arautegia jarraituz, karguak aldatu behar zirela argi ikusten zen eta 1970.eko otsailaren 28an Donostian egin zen bileran, orduan idazkaria zen Juan San Martinek hauteskundeak egitea proposatu zuen eta hala ez bazen egiten dimisioa aurkeztuko zuela jakinarazi zuen. Hurrengo bileretara ez zen San Martin etorri, Jose Luis Lizundia idazkari-ordeak hutsunea betez. Hurrengo osoen bileran, 1970.eko martxoaren 31an, Manuel Lekuona euskaltzainburuak «bi urterik behingo kargu aldatzea, araudiak dionez, uztaileko batzarrean egitekoa dala» esan zuen.

Sorbonako ikastaroa amaituta, lehendabizi Gipuzkoako ordezkariitza berrian 1970.eko uztailearen 29an egin zen bilerara etorri zen Mitxelena. Bertan zeuden Manuel Lekuona, buru, Haritschelhar, buruorde, Erkiaga, diruzain, Arrue, Iratzeder, Irigoien, Intza, Labaien, Lafitte, Larzabal, Lojendio, Villasante eta Zabala.

³⁶ Ikus Bibliografian 224 zenbakia.

³⁷ Ikus Bibliografian 233 zenbakia.

³⁸ Ikus Bibliografian 239 zenbakia.

³⁹ Ikus Bibliografian 258 zenbakia.



Maulen, 1970.eko urriaren 25ean, Luis Villasante euskaltzainburu hautatua izan zen eguneko argazkia. Ezker-eskubira: Dassance, Lekuona, Villasante, Mauleko alkatea, Haritschelhar, San Martin.

Beraz hamalau euskaltzain. Euskaltzainburuak martxoan proposatutakoari jarraituz, hauteskunde eguna zen. Hiru urte t'erdiko burutza zeraman Lekuona jaunak, 1966.eko abenduaren 30ean hautatua izan bait zen. Baina Arantzazuko bileran erabakiak hartu zirenetik, eta Mitxelenaren faltaz, Villasante zen berriztatzearen aitzindari. Heriotze mehatxuak ere hartuak zituen, goarda zibilaren semea zela ere atxekitzen zioten, eta beste eraso pila bat ere jasan behar izan zuen. Bero zeuden oraindik apirilean, *Arantzazu* aldizkarian, H letraren defentsan egin zituen adierazpenak, eta ekainekoan Lekuonak erantzun ziona: «H dela-ta, Villasante-ri eskutitz idekia». Pil-pilean zegoen arazoa. Horregatik, hauteskundeetara jo orduko, hainbat gauza zurrutzea eskatu zuen Mitxelenak, zenbait aldizkari eta tokitan auzitan eta dudan jartzen bait ziren Arantzazuko erabakiak. Eztabaida luze baten ondoren Mitxelenaren proposamena onartu zen, hots, Arantzazuko erabakiak bertan zeuden euskaltzain osoek hartutakoak zirela. Lekuonak eta Labaienek ohar bat ezarri zioten azken erabaki honi: erabaki horiek kontseilu erakoak zirela eta ez agindu erakoak. Salbuespen honekin, aurrera jo zuen bilerak.

Euskaltzainbururako bozketan, Luis Villasantek 11 botu lortu zituen, Lekuonak 3, Arruek 3, Barandiaranek 1 eta 2 botu zuri azaldu ziren. Beraz, Villasante izan zen euskaltzainburu berri hautatua. Beste zuzendaritzako kideak honako hauek izen ziren hautatuak: Jean Haritschelhar, buruorde; Juan San Martin, idazkari; Eusebio Erkiaga, diruzain. Azkenik, Alfonso Irigoien izan zen liburu-zain izendatua. Maulen, Herriko Etxean, 1970.eko urriaren 25ean, Salaberry kantutut biltzailearen mendeurreneko ospakizunean, burutu zen kargu aldaketa.

Harrezkero Luis Villasante euskaltzainburuarekin lanean ari izan direnak, zuzendaritzako laguntza hurbila emanaz, honako hauek izan dira:

Hauteskunde data	Burua	Buruordea	Idazkaria	Diruzaina
1972.11.24	Villasante	Haritschelhar	San Martin	Erkiaga
1974.10.11	Villasante	Haritschelhar	San Martin	Erkiaga
1976.10.29	Villasante	Haritschelhar	San Martin	Erkiaga
1978.11.24	Villasante	Haritschelhar	Satrustegi	San Martin
1980.11.28	Villasante	Haritschelhar	Satrustegi	Knörr
1982.11.26	Villasante	Haritschelhar	Satrustegi	Knörr
1984.11.30	Villasante	Haritschelhar	Satrustegi	Knörr
1986.12.19	Villasante	Haritschelhar	Satrustegi	San Martin

Maulen euskaltzainburu kargua hartu zuenean hasi zen benetan Euskaltzaindiarentzat aro berri bat. Aspaldidanik ezagutzen zituen Villasantek erakundearen huts, oker eta akatsak. Salbatore Mitxelenari entzuna zion agure zaharrak entzutea ez zela berriz bileretara joango, eta aita Jose Inazio Lasak ere esan omen zion Euskaltzaindia hiltzera zihoala. Beraz, izendatua izen zenetik hainbat hausnarke-ta egin zituen eta kargua Maulen hartu zuen egun berean, Euskaltzaindia eraberritzeko eman beharko ziren lehen urratsak azaldu zituen. Osoen hileroko bilerak beste era batera antolatzeke asmoa azaldu zuen, ordurartekoetatik —eta denetara joaten zen— etsipenak hartuta itzultzen omen zen Arantzazura. Bi edo hiru orduko bilera hauek, eguerdian bukatzen zirenak, fruitu eskasa ematen zuten; geldoak, astunak, efikazia gabekoak omen ziren. Egund osokoak egin beharko zirela proposatu zuen orduan Villasantek. Batzorderik ere ez zegoen, eta hauen aurre ikerketak beharrezkoak zirela iruditzen zitzaion Euskaltzainburu berriari, osoen erabakien oinarriak jartzeko. Gizaixo batek hartu zuela kargua esan zuen kazetariak ez zekien nolako adore eta aurrerazetasunez heltzen zen Euskaltzaindiaren arduradun eta gidari berria. Kargua hartu eta hilabetera «Euskaltzaindiaren egituraz» izeneko txostena irakurri zuen Villasantek Donostian 1970.eko azaroaren 27an.

Baina asmoak asmo, atzerakoi eta geldoren bat ere aurkitu zuen espero ez zuenen artean: arratsaldera bilerak luzatzearen kontrakoak, batzordeak osoen boterearen kontrakoak zirela uste zutenak, Arantzazuko erabakiak onartzen ez zituztenak, eta abar. Koldo Mitxelena Salamancan zegoenez, ia bakarrik aurkitzen zen Euskaltzainburua asmatu-egitama aurrera eramateko. Jose Luis Lizundia idazkari-ordearen laudorioak egiten ditu hemen Villasantek, berau izan bait zen eraberritzearen plana burutzeko laguntza eman ziona. Nahi zituen helburuak lortzeko Arautegi berria onartu beharra zegoen eta horretarako Iruñean, 1970.eko abenduaren 30ean batzorde eragile eta batzorde kontseilaria izendatuak izan ziren. Urtebeteren barruan, Arautegiaren testuak prestaturik zeuden eta 1972.eko apirilaren 4ean berretsiak. Arautegi hau garatzen zuten Barne Erregelak ere 1974.eko urtarrilaren 25ean onartuak izan ziren.

Euskaltzaindiaren beste lan eremu batzuk ere antolatu zituen, hala nola, Euskera batzordea (Donostia, 1971.3.26), Idatz arauen batzordea (Iruñea, 1970.12.30), Aditz batuaren batzordea, eta abar. Egun osoko bilerak egitea Bilbon, 1971.eko apirilaren 20an onartu zen. Euskaltzainburugoa ere antolatu zuen eta Donostian eta Gasteizen zeuden ordezkariak bulegoak Iruñera eta Baionara ere zabaltu zituen. Arantzazuko erabakiak finkatzerakoan, «Urre eztaietako zituak» txostena prestatu zuen 1971an⁴⁰. Beraz, urte pare batetan, Euskaltzaindiaren ibilpiderako zimentarriak jarriak zituen Villasantek, aro berri baten oinarriak sendotuz. *Euskera* agerkarian azaltzen zen «Euskaltzaindiko sailen eta batzordeen organigrama» izango zen aurrerantzerako antolamendua⁴¹.

Berari zegokion eginkizuna burutu zuelakoan, kargua utzi nahi izan zuen 1972.eko hauteskundeak heldu zirenean; baina Mitxelena eta San Martin euskaltzainek epe berri baten hasieran zeudela eta jarrai zezala eskatu zioten. Amore eman zuen eta 1972.eko azaroaren 24an berriz hautatua izan zen, Zuzendaritza berdina hurbileko laguntzaile edukiz. Eten gabe lanean jarraitu beharko zuelakoan, handik hilabetera, 1972.eko abenduaren 29an, «Epe berri baten aintzinean» txostena irakurri zuen.

Batasunerako bidea jorratzea zela zereginik garrantzitsuena ikusirik, *La declinación del vasco literario común* liburua argitaratu zuen 1972an⁴². «Eleizalde liburu sailaren» bigarrena zen hau. Hirugarrena 1974ean eman zigun, *Palabras vascas compuestas y derivadas*⁴³. Eta bi urtetik bi urtera sail hau aberasten joan zaigu honako liburu hauekin: *Sintaxis de la oración compuesta*⁴⁴, *Estudios de sintaxis vasca*⁴⁵, *Sintaxis de la oración simple*⁴⁶, *La H en la ortografía vasca*⁴⁷, *La oración causal en vasco*⁴⁸ eta *Euskararen auziaz*⁴⁹. Azken aurrekoa idazteko, kontutan izan dezagun 1981 eta 1982 urteetan «Las oraciones causales en Axular» aztertu zituela luze eta sakon⁵⁰. Batasunerako bide honetan, ortografiaren hartutako erabakiez gain, *Euskal aditz batua* liburua kaleratu zuen Euskaltzaindiak 1979an.

Batasunerako bideak zabalik zeudenez, beste premia batzuri ebazpidea eman beharrean aurkitzen zen Euskaltzaindia, hala nola, ofizialtasuna lortzea eta hurrengo urteetan burutu behar zen egitamuarentzat laguntza ekonomikoa jasotzea. Lehen helburua lortu zen Espainiako Erregeak, 1976.eko otsailaren 26ko Dekre-

⁴⁰ *Euskera*, 1971. 5-9.

⁴¹ *Euskera*, 1971, 160.

⁴² Ikus Bibliografian 294 zenbakia.

⁴³ Ikus Bibliografian 332 zenbakia.

⁴⁴ Ikus Bibliografian 372 zenbakia.

⁴⁵ Ikus Bibliografian 422 zenbakia.

⁴⁶ Ikus Bibliografian 480 zenbakia.

⁴⁷ Ikus Bibliografian 481 zenbakia.

⁴⁸ Ikus Bibliografian 632 zenbakia.

⁴⁹ Ikus Bibliografian 677 zenbakia.

⁵⁰ Ikus Bibliografian 526, 527, 549, 550 zenbakiak.

tuaren bidez, erakunde ofizialtzat onartu zuenean, Estatutu berriak onetsiz. Bigarrena ere, behin behinekoa behintzat, 1978an antolatu zen «Bai euskarari kanpaina» zelakoaren laguntzaz lortu zen. Lehen onespen hori dela eta, Madridero Kultur Ministraritzak argitaratu zuen *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca*⁵¹, ondo apaindutako liburua, baina presaka egina zenez, testuari dagokionetik huts nabariak dituena. Bigarren ekintzari esker, kanpainen lortutako dirutzarekin posible izan zen 1980.eko abuztuan Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak antolatzea. Gernikan eta Leioako Unibertsitatean irakurritako txosten eta agerpeneekin liburu ederra argitaratu zuen Euskaltzaindiak 1981ean, «Iker» sail berri bati hasiera emanez. Beste bide bat ere zabaldu zion Euskaltzaindiari kanpainen lortutako dirutzak, hots, egoitza berri baten bila hasteko ahalbidea. Azkenean, Jose Maria Makua Zarandona, Bizkaiko Diputazioaren buruari esker, Bilboko Plaza Barrian goitik beherako etxe bat Egoitzarako lortu zen, 1985.eko uztailaren 10ean aipatu Diputatu Nagusi horrekin Luis Villasante euskaltzainburuak sinatu zuen hitzarmenaren bidez.

Iker Saila aipatu dugunez, ondo legoke esatea Koldo Mitxelena izan zela 1978an ikerketen arduradun izendatua. Hau zen Villasanteren asmoetan zegoen eginkizun bat, hots, Euskaltzaindiak euskarari buruzko ikerketak bultzatu behar zituela. Ildo horretik jarraituz hiru biltzarre antolatu ziren: 1978an Bergaran, Arantzazuko bileraren 10. urteburuan, hango erabakiak berriz aztertu eta finkatzeko, gehien bat ortografiatzeko. Hurrengo urtean, 1979an hain zuzen, Arrasaten antolatu zen IX. Biltzarra, gramatika gaiak aztertzeko. Gai hauek helduago zeudenean, X. Biltzarra ospatu zen Iruñean 1984an. Baina ikerkuntza mundu honetan beste premia bat ere ikusten zen, hots, euskararen lekukoak aztertu eta argitara eman beharra. Lehen liburukia 1979an kaleratu zen. Sail honetarako hiru liburu prestatu ditu Villasantek: Etienne Lapeyre-ren *Kredo edo sinhesten dut esplikatua*⁵², Pierre Guillaume Lavieuville-ren *Bayonaco Diocesaco bigarren catichima*⁵³ eta Juan Antonio Mogelen *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristiana*⁵⁴. Baina ez dira hauek bakarrik Villasantek aztertu dituen euskararen klasiakoak. Euskaltzainburu izan den epean, hainbat euskal idazleren mendeurrenak zirela eta, ehundaka txosten idatzi eta argitaratu ditu, gehienak *Euskera* agerkarian, bibliografian ikus daitekeenez. Hauez gain, Euskaltzaindiaren edozein eginkizunetarako prestatu ditu beti Villasantek idazki baliotsuak, euskararen eta Euskaltzaindiaren historiarako iturri ugariak emanez.

Arrasate eta Iruñeko Biltzarretan aztertutako gaiekin Gramatika batzordea Euskaltzaindiaren Gramatika burutzen ari da, orain arte bizpahiru liburuki atera dituelarik, 1985ean hasita. Beste batzorde berri batek ere, Onomastikakoak hain

⁵¹ Ikus Bibliografian 373 zenbakia.

⁵² Ikus Bibliografian 554 zenbakia.

⁵³ Ikus Bibliografian 631 zenbakia.

⁵⁴ Ikus Bibliografian 674 zenbakia.

zuzen, «Onomasticon Vasconiae» saileko lehen liburua 1986an kaleratu zuen, geroztik beste sei atera dituelarik. Baina ikerketa mundu honetan izandako lorpenik haundienak honako hauek izan daitezke: *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*a eta *Orotariko Euskal Hiztegia*. Lehena Beran Dialektologia Batzarreak 1980ean egin zuen bileran ernatu zen, eta geroztik egindako hainbat bileretan bideratu, une honetan inkestak bukatuak direlarik eta informatizazio prozesuan ari delarik taldea. Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenari agindu zion hiztegia egiteko akordioa Gasteizen sinatu zen 1984.eko maiatzaren 16an, eta lehen liburukia Bizkaiko Diputazioan aurkeztu zen 1987.eko abenduaren 17an. Une honetan bosgarren liburukia ia prest dago.

Jagon Sailari dagokionetik, Bertsolari Txapelketa Nagusiak antolatu zituen Euskaltzaindiak 1979/1980 urteetan eta 1982an. Lehen horren bertsoak «Auspoa» bilduman argitaratu ziren⁵⁵ eta bigarrenarenak Euskaltzaindiak berak kaleratu zituen⁵⁶. Aipagarriak dira baita *Hitz egin* izenarekin 1978tik argitaratu diren oinarrizko euskararen metodoak.

Villasantek Euskaltzaindian burutu duen lana ikaragarria da zalantzarik gabe. Hamazortzi urtetan (1970-1988) Euskaltzainburu izan denak, Angeles Sorazuri beraren lana Arantzazun eskaintzeko utzi zuen kargua. Lehen ere, dakigunez, bizpahiru aldiz kargua utzi nahi izan zuen, baina Koldo Mitxelenak, gehien bat, jarraitzeko animatzen zuen. Oraingoan ez zegoen adorea ematen zion errenteriarra, urte bete lehenago hila⁵⁷. Biak ia batera euskaltzain izendatuak, Villasante 1951an eta Mitxelena 1952an, badakigu zenbaiteraino elkar estimatzen zuten. Euskarri honen galera Villasanterentzat mingarria izan zelakoan nago, eta hain luze eta arduratsu Euskaltzaindiaren zuzendaritzan ziharduen fraideak, Arantzazuko baketara zokoratzea erabaki du.

Hurrengo euskaltzainburua Jean Haritschelhar dugu, 1988.eko abenduaren 30ean euskaltzainek hautatua, Villasanteren gomendioz. Beste garai bat hasi ote da Euskaltzaindian? Hala balitz kostatuko zaigu jarraitzaileoi berak egin duen beste burutzea. Mila esker, aita Luis Villasante Kortabitarte.

⁵⁵ Auspoa bilduma, 141 zenbakia, 1980.

⁵⁶ Jagon Saila, I, 1982.

⁵⁷ 1987.10.11

BIBLIOGRAFIA

1944

1. «Artzai ta Santu».
El Maestro de los Terciarios, Tolosa, 1944, Mayo, n° 1

1949

2. *Theses Theologiae Fundamentalis (Ad usum privatum et pro manuscripto). Pars Prior. De Revelatione Christiana. De Jesu Christo Legato Divino.*
Aranzazu: Editorial Franciscana de Aranzazu, 1949, 72 orr. 24 x 27 zm.
3. «Acaba de aparecer *Arantzazu, Euskal-Poema* (por el P. Salvador Michelena, franciscano)».
Aranzazu, 1949, V, Mayo, n° 302, 118-121.orr.
4. «Egizko zoriona».
Aranzazu, X, Octubre, n° 307, 239-241.orr.
5. «Eguberri»
Aranzazu, 1949, XII, Diciembre, n° 309, 287-288.orr.
6. «Eliz-urteko garaiak. Abendua».
Aranzazu, 1949, Noviembre, n° 308, 267-269.orr.
7. «Elurra danean ...».
Aranzazu, 1949, Enero, n° 298, 11-12.orr.
8. «En torno al poema *Arantzazu* del P. Salvador Michelena (I)».
Aranzazu, 1949, IX, Septiembre, n° 306, 214-215, 218-219.orr.; (II): *Aranzazu*, 1949, XI, Noviembre, n° 308, 260-263.orr.
9. «Jesukristoren egizko irudirik ez ote daukagu?».
Aranzazu, 1949, Abril, n° 300, 92-95.orr.
10. «Jesusen biotzaren maitale sutsu bat: Angeles Sorazu ta Aizpurua».
Aranzazu, 1949, VI, Junio, n° 303, 144-146.orr.
11. «Kristaua, bazeneki...».
Aranzazu, 1949, VIII, Agosto, n° 305, 179-181.orr.
12. «Kristau guztien irakasle».
Aranzazu, 1949, Marzo, n° 299, 61-63.orr.

1950

13. *La Sierva de Dios M. Angeles Sorazu, Concepcionista Franciscana (1873-1921). Estudio místico de su vida.* Tesis doctoral.
Bilbao: Ediciones de PP. Franciscanos, Aranzazu y Desclée de Brouwer, Vol. I, 1950, XXIII+434 orr.; Vol. II, 1951, 369 orr., 21 x 15 zm.
Fr. L.: «Villasante, Fr. Luis: La Sierva de Dios M^a Angeles Sorazu». *Aranzazu*, 1951, XII, 361. orr.
14. *Theses theologiae Fundamentalibus (Ad usum privatum et pro manuscripto). Pars II. De Ecclesia Christi.*
Aranzazu: Editorial Franciscana de Aranzazu, 1950, 95 orr.
15. «Arantzazuko Ama Birjiñaren agertzea nola izan zen».
Aranzazu, 1950, IX, n^o 318, 228-231. orr.
16. «El día 15 de Agosto, festividad de Nuestra Señora».
Aranzazu, 1950, VIII, n^o 317, 202-204. orr.
17. «Errege egunean».
Aranzazu, 1950, Enero, n^o 310, 4-5. orr.
18. «Jesusen bizitza».
Aranzazu, 1950, II, n^o 311, 40-41. orr.
19. «Kalbario-mendi».
Aranzazu, 1950, III, n^o 312, 54-55. orr.
20. «Mysterium fidei (Corpus Christi egunean)».
Aranzazu, 1950, VI, n^o 315, 149-150. orr.
21. «Pazko-aldia».
Aranzazu, 1950, IV, n^o 313, 88-89, 101. orr.
22. «Zeruetara igo zana ...».
Aranzazu, 1950, V, n^o 314, 122-124. orr.
23. «Historia de Ntra. Sra. de Izaskun». (W. Mayoraren liburuaren irazkina).
Aranzazu, 1950, 11, 304. orr.
24. «Historia de Ntra. Sra. de Begoña, de D. Andrés E. de Mañaricua». (Bilbao: Editorial Vizcaina, 200 orr., 19,5 x 13 zm.)
Aranzazu, 1950, XII, n^o 321, 320. orr.

1951

25. *En torno al problema del vascuence.*
Aranzazu: Imprenta del Santuario, 1951, 16 orr.
26. «Angeles Sorazu. Emakume goitar baten berri laburra».
Gernika, 1951, (Julio), n^o 16, 19-24. orr.

27. «Assumpta est Maria».
Aranzazu, 1951, VIII-IX, 228-231. orr.
28. «Doctrina espiritual de la M. Angeles Sorazu».
Verdad y Vida, 1951, Octubre-Diciembre, nº 36, 447-495. orr.
29. «*Munificentissimus Deus* izeneko Bula dogmatikoa, euskaraz».
Aranzazu, 1951, (IV), 74-78, 99-102, 133-137. orr.
 J. Martínez de Marigorta: *Andra Mari de la Asunción. Vasconia Asuncionista*. Vitoria: Editorial S. Católica, 1951, 247+XII orr., 48,5 x 13,5 zm., 215-247. orr.
30. «En torno al problema del vascuence».
Cantabria Franciscana, 1951, nº 8, 40-54. orr.

1952

31. *Theses Theologiae Fundamentalibus (Ad usum privatum et pro manuscripto) Pars III. De Fide Ecclesiae Catholicae*.
Aranzazu: Editorial Franciscana de Aranzazu, Collegium Theologicum de Aranzazu, 1952, 62 orr., 24 x 17 zm.
32. «Aclaraciones a «¿Esperanto o vascuence?»».
Cantabria Franciscana, 1952, Vol. VII, 55-66. orr.
33. «Andre Dena Mariaren Assumpzioa».
Gernika, 1952, Abril-Junio, nº 19, 129-133, orr.; Julio-Septiembre, nº 20, 214-216. orr.
34. «La literatura euskerica en la Provincia Franciscana de Cantabria».
Aranzazu, 1952, V, nº 328, 132-137. orr.; VIII-IX, nº 331, 236-240. orr.
 Etxaide, Y.: «Euskal-elerria prantziskotarren Kantauri barrutian. Aita Villasante'k *Aranzazu* aldizkarian erderaz idatzitakoa Etxaitar'ek euskerara emana». *Euzko Gogo*, 1954, V, 174-178. orr.
35. «Literatur-euskara Laphurrtarr Klassikoaren gain eratu». *BRSVAP*, 1952, VIII, 91-119, 259-298. orr. (Euskaltzain sarrera hitzaldia. Erantzuna Krutwig-ek)
 Anasagasti, Pedro: «Fray Luis Villasante, Académico». *Aranzazu*, 1952, nº 8-9, 236. orr.
 Ibinagabeitia, A.: *Euzko Gogo*, 1954, V, 127-128. orr.
 Krutwig, F.: Hitzaldi bat eta bere aurre-historia». *Egan*, 1986, 5-6, 11-36. orr.
 Sarrailh de Ihartzeta, F. (Krutwig, F.): «Discurso al saludar en la Academia de la Lengua Vasca. La entrada del R.P. Fray Luis Villasante (O.F.M.) en ceremonia celebrada en la Palacio de la Excma. Diputación de Vizcaya, Mayo 1952». *Vasconia*, Buenos Aires, (1963), 518-526. orr.

1953

36. «*Euskera*'ren I aroa; I época (1920-1937). Aurkibideak. Indices. Tables». *Euskera*, 1953, I, 3-25. orr.
37. «Joanes Etxeberri (1669-1749)». *BRSVAP*, 1953, IX, 231-243. orr.
38. «Vida y doctrina mariana de la Sierva de Dios, R.M. Angeles Sorazu, Concepcionista Franciscana (1873-1921)». *Miscelánea Comillas*, 1953, XX, 109-166. orr.

1954

39. «Atal apologetikoa. Ni naiz ...». *Anaitasuna*, 1954, Junio, nº 122, 2. orr.
40. «Recuerdo y homenaje. Ha muerto el fundador de Mendi-Etxebarri». *Aranzazu*, 1954, V, nº 350, 158-159. orr.
41. «Urruxula-garaiko burruka ura ...». *Aranzazu*, 1954, III, nº 348, 86-87. orr.

1955

42. *Goi-argi. Ars-ko erretore santuaren erakusaldiak. Itzulpena: Aita Villasante, O.F.M., Euskaltzaindikoak. Apaingarriak J.L. Iriondo Anaiak, O.F.M.*
Aránzazu: (Edit. Franciscana), 1955, 168 orr., 19 x 12,5 zm.
Ibinagabeitia, A.: *Euzko Gogoa*, 1955, VI, 142. orr.
Zugasti, A.: *Egan*, nº 3-4, 63-64. orr.
43. *Paradigmas de la conjugación vasca (Dialectos guipuzcoano y vizcaino). Estos paradigmas han sido preparados por los PP. Luis Villasante y Carmelo Iturria, O.F.M., con la ayuda de Fr. Adrián Zabalgoeascoa, O.F.M. para uso de los Colegios Seráficos de Aránzazu y Forua.*
Aránzazu: Editorial Franciscana, 1955, zenbatu gabeko 37 orr., 16,5 x 25,5 zm.
Ibinagabeitia, A.: *Euzko Gogoa*, 1956, VI, 142. orr.
Michelena, L.: *BRSVAP*, 1955, XI, 121-123. orr.
44. «Aita Palacios, Oñatiko seme argia (1727-1804)». *Oñate*, 1954-1955, IV, 36-38. orr.
45. «Jesu-ren barnea». *Anaitasuna*, 1955, Abril, nº 132, 3. orr.
46. «Jesu-ren etxe barnean». *Anaitasuna*, 1955, Marzo, nº 131, 2. orr.

47. «Nombres toponímicos en la región de Aloña y Katabera».
Aranzazu, 1955, II, n° 360, 74-76. orr.
48. «Mañaricua (Andrés E. de, Pbro.). *La Inmaculada en Vizcaya*. Desclée de Brouwer, Bilbao, 1954».
Egan, 1955, VII, n° 1-2, 59-60. orr.

1956

49. *Euskal gramatika llabur eta idazleen pusketa autatuak. (Arantzazuko Azte-txeko Irugarren Kursokoentzat)*.
Bilbao: Casa de Misericordia, 1956, 60+I orr., 21 x 15 zm.
Lekuona, M.: *Egan*, 1957, X, 115. orr.
Michelena, L.: *BRSVAP*, 1956, XII, 467-468. orr.
Urrestarazu, A.: *Euzko Gogoa*, 1957, Ep.-lo., VII, 114-116. orr.
50. «Adabakiak. Galderantzunak».
Egan, 1956, n° 3-4, 98-101. orr.
51. «Aita Añibarro, euskal idazlea (1748-1830)».
Euzko Gogoa, 1956, VII, ilbelta-otsaila, 60-88. orr.
52. «El caso de la Madre Sorazu».
Verdad y Vida, 1956, n° 53, Enero-Marzo, 105-114. orr.
53. «Comunicación sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca».
Euskera, 1956, I, 14-18. orr.
54. «Despojo sistemático de la lengua de Axular».
Euskera, 1956, I, 49-87. orr.
55. «Erostege-ko baserri eroria».
Aranzazu, 1956, 1-2, n° 368, 24-45. orr.
56. «La Espiritualidad Ignaciana y la Franciscana. Contribución a su estudio comparativo».
Manresa, 1956, Vol. 28, 399-454. orr.
57. «Gure eginbearrak».
Euskera, 1956, I, 257-268. orr.
Euskaltzaleen Biltzarra, 95-106. orr.
58. «Una lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra, de principios del siglo XIX (de P.A. de Añibarro)».
BRSVAP, 1956, XII, 433-446. orr.
Geografía histórica de la lengua vasca. Zarauz, (1960), 44-60. orr.

59. «San Inazioaren urtea dala-ta. San Juan de Artia».
Egan, 1956, n° 3-4, 26-28. orr.
60. Berriatua, I.: *Kristiñau Katekismoa*, «Itzaurre-ordez». Zarauz: Itxaropena argitaldaria, 1956, VIII+67 orr., 15 x 10 zm.

1957

61. *Kristiñau Ikasbidea*. (Versión euskérica de G. Manterola y L. Villasante). Bilbao, 1957
62. «Acaba de publicarse la obra principal de la M. Angeles Sorazu».
Aranzazu, 1957, 12, n° 386, 363. orr.
63. «Arimeari jaten emoten deutzazu?».
Anaitasuna, 1957, n° 43, Avendua (sic), 1. orr.
64. «Biblia ta liturgia».
Anaitasuna, 1957, n° 42, zemendia, 1. orr.
65. «Bonaparte-ren omenez».
Aranzazu, 1957, VII, n° 383, 211-212. orr.
66. «Despojo sistemático de la lengua de Axular».
Euskera, 1957, II, 54-90. orr.
67. «En torno a una biografía espiritual inédita: Bernarda Ruiz de Gamiz (1745-1781)».
Verdad y Vida, 1957, XV, n° 58, Abril-Junio, 183-198. orr.
68. «Iratzeder gure artean».
Egan, 1957, n° 1-2, 12-14. orr.
69. «*Leturia-ren egunkari ezkutua*» (Txillardegiren liburuaren irazkina).
Egan, 1957, n° 5-6, 328-332. orr.
70. «Sarasola, Fr. Modesto. O.F.M. *La Ciudad de Orduña y su Vizcainía*. Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya. Bilbao, 1957, pp. 116».
Egan, 1957, n° 3-4, 238-239. orr.

1958

71. *Kataliñen gogoetak. Aita Luis Villasante frantziskotarrak Gipuzkoako euskeraz jarriak*. (P. Arradoy Kattalinen gogoetak liburuaren itzulpena. Baiona: L.F.A.C., 1955, 106+II orr., 20 zm)
 Oñate: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldarian, 1958, 110 orr., 19 x 13 zm.
 Lekuona, M.: *Egan*, 1958, Vol. XI, 108. orr.
72. «Aita Santua il da»
Anaitasuna, 1958, n° 53, Urria, 1. orr.

73. «Aita Santuak diñosku ze»
Anaitasuna, 1958, n° 45, Zezeila, 1. orr.
74. «Aita Santu barria».
Anaitasuna, 1958, n° 54, Zemendia, 1. orr.
75. «Al habla con el Sr. Naert. Juicios de un sueco sobre el euskera».
Aranzazu, 1958, fasc. 8, n° 364, 212-214, orr.
76. «Biografía espiritual de Bernarda Ruiz de Gamiz, joven labradora de Betoño, Alava. 1743-1781».
Scriptorium Victoriense, 1958, n° 5, 36-95, 222-261. orr.
77. «Con cuatro siglos de retraso acaba de publicarse el primer diccionario vasco».
Aranzazu, 1958, fasc. 7, n° 363, 188-189. orr.
78. «Euskaltzaleen Batzarrak Bilbon».
Anaitasuna, 1958, n° 55, Abendua, 1. orr.
79. «Leizako jaialdia». (Orixeru buruz).
Anaitasuna, 1958, n° 44, Urtarrila, 1. orr.
80. «Leinz'ko Erregiña».
Aranzazu, 1958, fasc. 12, n° 368, 340-343. orr.
81. «Milovan Djilas».
Anaitasuna, 1958, n° 46, Martia, 1. orr.
82. «Munduaren egokitasuna eta Jainkoa».
Egan, 1958, n° 1-2, 48-52, orr.; n° 3-6, 196-204. orr.

1959

83. «Batasunaz geiago».
Anaitasuna, 1959, n° 57, Zezeilla, 1. orr.
84. «Bizitzatik urbil».
Euskera, 1959, IV, 101-119. orr.
85. «El caso de una curada de Lourdes. Doña Teodora Mondragón».
Aranzazu, 1959, Julio, n° 374, 185-186. orr.
86. «Despojo sistemático de la lengua de Axular».
Euskera, 1959, IV, 11-41. orr.
87. «Euskaldun Erriak. Aulestia».
Aranzazu, 1959, Marzo, n° 370, 68-70. orr.
88. «Euskal gizonak: Joannes Leizarraga».
Aranzazu, 1959, Agosto, n° 375, 233-234. orr.
89. «Euskal gizonak: Pedro Axular».
Aranzazu, 1959, Septiembre, n° 376, 266-268. orr.

90. «Euskal gizonak: Joannes Etxeberri». *Aranzazu*, 1959, octubre, nº 377, 299-300. orr.
91. «Gure literatura zaarra». *Aranzazu*, 1959, Noviembre, nº 378, 328-333. orr.
92. «Kristau guztiak bat izan gaitezen. Batasunaren ordua». *Aranzazu*, 1959, Enero-Febrero, nº 369, 9. orr.
93. «Kristauen batasuna». *Aranzazu*, 1959, Marzo, nº 370, 51-52. orr.
94. «Kristiñauen batasuna». *Anaitasuna*, 1959, Urtarrilla, nº 56, 1. orr.
95. «Mondragoeko andra bat Lurdesen osatu». *Anaitasuna*, 1959, nº 58. Martia, 1. orr.
96. «Mondragoeko andre bat Lourdesen sendatu». *Aranzazu*, 1959, Abril, nº 371, 91-101. orr.
97. «Notas sobre el Congreso de Lengua Vasca de Bilbao». *Aranzazu*, 1959, Enero-Febrero, nº 369, 30-31. orr.
98. «Traducción de la Biblia al vascuence». *Aranzazu*, 1959, Abril, nº 371, 94-98. orr.
99. «Pierre Naert. Por qué el vascuence debe subsistir» (L. Villasanteren itzulpena). *Aranzazu*, 1959, Abril, nº 371, 99-101. orr.
100. «Conferencias de la Semana Vasca (de San Sebastian, por L. Villasante, J. de Arteche, y L. Michelena). *BRSVAP*, 1959, XV, 340-343. orr.

1960

101. «Aita Uriarte eta euskarazko bere Biblia». *Aranzazu*, 1960, Octubre-Noviembre, nº 389-390, 322-326. orr.
102. «Juan Antonio Mogel. Berri jakingarri batzuek». *Euskera*, 1960, V, 50-61. orr.
103. «Semblanza espiritual del P. Palacios». *Cantabria Franciscana*, 1960, 272-286. orr.
104. «Zergaitik gorde bear degun euskera». (Hitzaldia, Elgoibar, 1959.XII.6). *Aranzazu*, 1960, Junio, nº 385, 172-175. orr.
105. *Vitoria Franciscana. Las Clarisas del Portal de Ali, 1910-1960*. «Introducción» (L. Villasanterena). Vitoria, 1960, 108 orr.

106. «*Vitoria Franciscana. Las Clarisas del Portal de Ali, 1910-1960*». (Liburua-
ren irazkina).
BRSVAP, 1960, XVI, 500-501. orr.
107. «Ntra. Sra. de Iru-Etxeta. Opúsculo de Mons. D. Wenceslao Mayora Telleria».
Aranzazu, 1960, Septiembre, nº 388, 286. orr.
108. «*Historia de la literatura vasca*. Luis Michelena. Ediciones Minotauro. Bi-
blioteca Vasca. VII. Madrid, 1960».
Egan, 1960, nº 3-6, 228-230. orr.

1961

109. *Goi-argi. Ars'ko erretore santuaren erakusaldiak. Itzulpena: Aita Villasante. Apaingarriak: aita Jose Luis Iriondo. Bigarren Agerraldia.*
Arantzazu, 1961, 167 orr., 19,5 zm.
110. *Graziano Anduaga. Aitonaren uzta Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin Aita Luis Villasantek osoturiko bilduma.* «Sarbide» (Luis Villa-
sante, 11-34. orr.).
Zarautz: Itxaropena Argitaldaria, 1961, 158 orr., 18 x 12 zm., «Kuliska Sorta
47-48, zb.»
111. *Historia de la literatura vasca.*
Bilbao: Editorial Sendo, (Gráficas Bilbao), 1961, 445 orr. ilustr., 22 zm.,
«Colección Larrun, I».
- Aquesolo, L.: «Una obra vasca ignorada, *Erle gobernatzalleen guidarija*». *BRSVAP*,
1964, XX, 367-374. orr.
- Garate, J.: *BRSVAP*, 1962, XIII, 177-180. orr.
- Geu: «Una opinión. Crítica de la *Historia de la literatura vasca*, del P. Luis Villa-
sante, O.F.M.» In: *En defensa de la lengua*. Bilbao, 1962, 3-22. orr.
- Idoate, F.: *Principe de Viana*, 1961, XXII, 261-262. orr.
- Intxausti, J.: *BRSVAP*, 1962, XVIII, 91-92. orr.
- Intxausti, J.: «Una magnífica contribución a la cultura vasca». *Aranzazu*, 1962,
XLIII, 38-40. orr.
- Solaun, Jesús: «Kamaraka». *Alderdi*, 1962, Febrero, nº 179, 13-16. orr.
- Tauer, N.: «Euskera ta Euskal-literatura». *Aranzazu*, 1964, XLIV, 86-88. orr.
112. *Nere izena zen Plorentxi. Angeles Sorazuren bizitza. Estalkia: Aita J.L. Iriondok.*
Zarautz: Itxaropena, 1961, 162 orr., ilustr., 18,5 x 12 zm.
- Arocena, F.: *BRSVAP*, 1961, XVII, 108. orr.
- Aranzazu*, 1961, XLII, 125. orr.
113. «Aita Uriarte eta euskerazko bere Biblia».
Cantabria Franciscana, 1961, XIX, nº 57-58-59, julio-octubre, 229-234. orr.

114. «Despojo sistemático de la lengua de Axular».
Euskera, 1961, V, 31-57. orr.
115. «Aita Luis Villasante-k egindako erantzuna». (L. Mitxelena Euskaltzaindian sartzean).
Euskera, 1961, VI, 22-26. orr.
116. «Euskal eskola nola ematen dedan».
Gure Herria, 1961, XXXIII, 341-349. orr.
117. «Koroazioko testigu bat».
Aranzazu, 1961, Julio-Agosto, n° 398-399, 206-207. orr.
118. «El Padre Palacios (1727-1804). Estampa de un gran misionero en nuestro siglo XVIII».
Scriptorium Victoriense, 1961, VIII, 7-108. orr.
Arocena, F.: *BRSVAP*, 1961, XVII, 449-450. orr.
119. «La Virgen María en la *Linguae Vasconum Primitiae*, de Bernard Dechepare (1545)».
BRSVAP, 1961, XVII, 179-191. orr.
120. Urquiola, José Antonio: *Diálogos de la luz*. «Prólogo» (Luis Villasante).
Madrid, Editorial Cisneros, 1961.

1962

121. *Kristau fedearen sustraiak. I. Jainkoa*.
Aranzazu-Oñati: Jakin Taldea, Talleres Gráficos del Santuario de Aranzazu, 1962, 207 orr. 19,5 x 12,5 zm.
Arteche, J.: *BRSVAP*, 1962, XVIII, 442. orr.
Zeleta: *Aranzazu*, 1962, XLIII, 377-378. orr.
